

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 44 toki-erakundek 1.200 langabe kontratatuko dituzte babestutako enplegu sozialaren bidez

*Nafarroako Gobernuak sei milioi euro bideratu ditu programa hori finantzatzeko, eta haren barnean laguntza soziala nahiz prestakuntzako ekintzak sartzen dira*

Viernes, 18 de marzo de 2016

Nafarroako [44 toki-erakunde](#)k langabeak eta gehienak gizarteratzeko errentaren jasotzaileak diren 1.200 pertsona inguru kontratatuko dituzte babestutako enplegu sozialeko programaren bidez; haren barnean, laguntza soziala eta prestakuntzako ekintzak sartzen dira ere, haiek guztiak lan merkatuan errazago sar daitezten.



Kontratuek hiru hilabete baino gehiago irauten dute, batez beste.

Programa hori finantzatzeko, Nafarroako Gobernuak sei milioi euro bideratu ditu, iaz baino lau milioi gehiago ia; orduan, 2,79 milioi euro esleitu ziren. Aipagarria da 2105. urtean beste 2,69 milioi erabili zirela aurreko egingo den zuzeneko enplegu aktiboaren programarako. Beraz, 2015ean babestutako enplegu sozialeko eta zuzeneko enplegu aktiboaren programetarako bideratutako zenbatekoak batuta, aurreko babestutako enpleguaren ekintzak finantzatzeko aurrekontu gordinean 500.000 euro gehiago izango dira (% 9).

Hala ezagutarazi du gaur goizean, prentsaurrekoan, Eskubide Sozialerako lehendakariorde Miguel Laparrak, eta harekin batera izan da Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako zuzendari nagusi Gema Mañu ere. Laparra lehendakariordeak azpimarratu du, halaber, oraingoan Nafarroako Gobernuak laguntzen deialdi hau lehen hiruhilekoa amaitu aurretik ebatzi duela, eta ez aurreko ekitaldietan bezala, emaitzak urtearen erdialdera eskuratzen zirenean.

Kontratatu diren pertsonen kopurua kalkulatzeko, Eskubide Sozialerako Departamentuak programa honen bidez iaz formalizatutako kontratuen batez besteko iraupena kalkulatu du (3,4 hilabete). Gainera, babestutako enplegu sozialari lotuta ere, laguntzeko 60 eta 70 arteko kontratazioak egingo dira begirale, hezitzaile eta gizarte langileak kontuan hartuta.

Laguntzen deialdi honetan parte hartzeko toki-erakundeek

aurkeztutako proiektuen balorazioan kontuan hartu dira, alde batetik, udalerrien tamaina, eta bestetik, eskualdeko langabeen portzentajea eta gizarteratzeko errenta jasotzen duten pertsonak, bai eta beste alderdi batzuk ere, emakumeen kontratazioa edo osasun mentaleko saretik bideratutako pertsonena, esaterako. "Finean, Nafarroako lurralde-desorekak zuzentzeko ahaleginak bateratzea da asmoa eta, hala, kalte gehien jasandako guneetan enplegu gehiago izatea erraztuko da", nabarmendu du Laparra lehendakariordeak.

## **2015eko emaitza**

[laz](#), Nafarroako Gobernuaren aurrekontua 2,19 milioi izan zen babestutako enplegu soziala finantzatzeko, eta zenbateko horri urrian 600.000 euro gehitu zitzaion, 2,79 milioiraino. Zenbateko horrekin, guztira 551 pertsona kontratatu ziren Nafarroan programa horren bidez. Haietatik, % 54 gizonak ziren eta % 46, emakumeak.

Zuzeneko enplegu aktiboko programari dagokionez (bertan enpresak parte har dezakete, eta haren onuradunak bazterkeria egoeran ez dauden langabeak dira), Foru Gobernuak 1,5 milioi euro bideratu zuen hasiera batean, eta kopuru hori bi aldiz zabaldu zen: ekainean, 969.000 euroekin, eta urrian, 227.658 euroekin, Guztira, 2,69 milioi euro, eta diru horrekin 592 kontratazio finantzatu ziren.

Aipagarria da bi programa horiekin kontratatutako pertsonen zifretatik, 169 kontratu Gobernu berriak enplegua sortzeko aparteko neurri gisa onartutako aurrekontu-zabaltzeei dagokiela.

2015eko programa horien hasierako aurrekontuei dagokienez, aurten babestutako enplegu sozialerako iazko ekitaldian baino % 27,66 bideratuko da.

## **Babestutako enplegu soziala**

Babestutako enplegu sozialaren programa honako honetan datza: gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen lan kontratazioa, edo zailtasunak dituztenak normalizatutako lanpostuak eskuratu eta mantentzeko. Hala, laneratzeko beren gaitasunak hobetu nahi dira laguntza sozial bizi baten bidez, trebetasun sozial, lan eta lanbideko trebetasunetan prestatuz eta taldeko intereseko jarduera bat betez.

Diru-laguntza jasotako ekimenek sei hilabete irauten dute gutxienez, eta kontratatu beharreko pertsonak proiektuetan data ezberdinetan sar daitezke, beren laneratzeko gizarteratzeko ibilbide propioari egokituz. Garatu beharreko lanek errentagarritasuna bilatzen dute langileen enplegugarritasuna hobetzearren testuinguruan, eta egin beharreko jarduera toki-erakundearen eskumeneko esparruaren barnean egingo da, emakumeen lan-aukerak hobetzeko ekintzen prestakuntzari arreta berezia emanez.

Babestutako enplegu sozialeko programaren % 50 Europako Funts Sozialaren bidez kofinantzatuta dago, Nafarroako FSE 2014-2020 Programa Eragilearen bidez.

## **Enpleguko beste programa batzuk**

Gogora ekarri behar da, aurten Gazteen Berme Sistemari inskribatutako gazteak kontratatuzeko programa martxan dagoela oraindik; programa horretarako 1,11 milioi euro gehiago bideratu ziren 2015 aren amaieran, eta haren bidez, 236 gazte kontratatu ziren sei hilabetez gutxienez; beraz, haien zati handi bat une hauetan oraindik kontratatuta segitzen dute.

Halaber, 2016 urte honetarako, Nafar Lansareak toki-erakundeetarako 2,8 milioi euroko laguntzen deialdia egin du langabeak kontratatuzeko. Programa horrekin berarekin, iaz 693 pertsona kontratatu ziren.